

Javier Corcuera zinegileak komunikazio ikasleei erakutsi die zelan egin dokumental bat

2007/05/07

Javier Corcuera zinegile perutarra HUHEZIn izan da bere lehen film luzea aurkezten, **La espalda del mundo**, dokumental bat non erakusten duen munduaren ifrentzua, munduak ikusi nahi ez dituen egoerak. Filmaren lehen zatiak erakusten du **haur** baten historia Perun, zeinek hargin moduan lan egiten duen. Bigarrenak, **senar-emazte kurdu** batzuen historia dakar, bata deserrian eta bestea espetxean, beren kurdutasuna adieraztearren. Hirugarrena, aldiz, Texasen egina dago, espetxe bateko **heriotza korridoreetan**. Dokumental hunkigarria eta ondo egina.

Ondorengo elkarrizketan, Javier Corcuera hitz egin du dokumental generoaren pizkundez: “Pizkundea benetakoa da, dokumental asko egiten ari da, jende gaztea dabil horretan, eta demokratizatu egin da era horretako zinema egitea, batez ere kostuak merkatu egin direlako”. Hala ere, arazo handi bat dago oraindik ere, “eta hori da banaketa eta promozioa, dokumentalak nekez promozionatzen baitira”.

“Dokumentalak lan egiten du errealitate zatiekin”, esan du elkarrizketan, “eta bereizten da fikziozko filmetatik zeren dokumentala egiterakoan, ez dakizu zelan amaituko den. Etengabeko bilaketa bat da”.

Javier Corcuera

Perun jaio arren, Espainian egin da zinegile moduan. Izan ere, Madrilen ikasi baitzuen zinema Unibertsitate Complutensean, eta gero ere, Espainian egin baitu lan gehien. Gaur ikusi dugun dokumentalaz gain, beste hauek ere egin ditu: *La guerrilla de la memoria*, *En el mundo a cada rato*, *Invierno en Bagdad* eta *Invisibles*. Horiez gain, 15 bat dokumental egin ditu telebistarako.

Gaur egun hainbat ekoiztetxerentzat egiten du lan, irakatsi ere egiten du Madrilgo Zine Institutuan eta Saharako Zinemaldia zuzentzen du.

